



Literatura

*Motoa*  
 Juan Kruz Igerabide  
 Alberdania, 2012

## Motoan ibiltzen ikasi

LASTER BATEAN irakurtzen diren ehun orrialdeetan biltzen da Juan Kruz Igerabideren azken eleberria. *Motoa*. Bertan kontatzen dena istorio sinplea da, misterio handirik gabea, eta ulertzen erraza. Hitz batean esateko; entretenigarria.

Hamabost urte beterik, Igorrek moto bat erosi du aitona utzitako herentziarekin. Gazte berezia da Igor; ezin du, marrantarik gabe, hiru hitz baino gehiago segidan ahoskatu. Ausarta eta isila; eta lotsatia, erdi maingu zelako. Aita eta arrebarekin bizi da, amak beste gizon batekin alde egin zuelako, eta etxe-egoera ekonomikoa larri samarra da. Giro personal hartatik kanpo, Igor bere lagun Tripazorroekin ibiltzen da herrian barna, motoarekin gora eta behera, Irene tartean sartzen den arte. Orduan hasiko dira istorioari gatz apur bat gaineratzen dioten ezin pentsatuzko gertakari kateatuak.

Eleberria, nerabezaroko gai eta arazo “ohikoetan” oinarrituz eraikia da. Gazteen ahotan sexua eta drogak presente daude etengabe baina, era sotilago batean, pertsonaiek mantentzen dituzten elkarriketen bitartez, azaleratuz joango dira gazteria kezkatzen duten beste hainbat motibo: talde baten partaide izatearen premia, aurrez pentsatu gabeko bulkadak, munduarekiko errebeldia eta, askotan horri loturik, politika arazoak.

Tematika aldetik gauza interesgarriarik topatu ez dudan arren, bada bereziki nire atentzioa bereganatu

duen elementu bat. *Motoa*. Zergatik izenburutzat aukeratu? Zein da haren garrantzia?

Eleberri hastapenetik amaierara ageri den konstantea da. Nik esango nuke elementu narratibo gisa erabilia dela. Igor moto gainean dagoen oro, bere haurtzaroko oroitzapenak flashback moduan txertatzen dira: aitona heriotza, amaren gaixotasuna, arrebarekiko erlazio katastrofikoa, institutuko pasadizo zena, etab. Gutxinaka, pertsonaien bizitzetako piezak bilduz goaz, ulertuz, eta ikusiko ditugu nola iragan horren zamarekin aurrera egiten saiatzen diren.

*Motoa*, bizitzan aurrera egite horren sinbolo gisa ulertu dut nik. Nerabezaroren aurrera egiteko moduarena hain zuzen ere; zarataka, azkar eta, Igorren kasuan, galgarik eza: “Igorrek hori guztia oroitzen zuen bitartean, galgen klik ia sumaezina nabaritu zuen berriro hatzetan. Ondo berrikusi beharra zeukaten galga-sistema”.

Galga sistemaren soinua arriskuaren seinale da. Eszenaren errepikapena *in crescendo* somatuko dugu eleberrian zehar, bat datorrelako tramaren intentsitatearekin. Igorren esku dago azeleragailua sakatu ala ez: “oraingoa ez zion arretarik jarri galgak egin zuen klik nabarmenari”.

Kolpea hartuko al du, edo garaiz gelditzen jakingo du. ■

Saioa Ruiz Gonzalez



**Udako solstizioa  
 PLANETARIUMEAN**

Ekainak 22 eta 23 an  
 Ikus entzunezko saio bereziak  
 Sarrera doan  
 Leku kopuru mugatua

[www.eurekamuseoa.es](http://www.eurekamuseoa.es) / 943 012 478

**eureka!**  
 zientzia  
 museoa  
kutxa gizarte ekintza